

Abarak

MIKEL GARCIA

Sotilki, baina beldurrik gabe

TASIO, SECRETOS DEL CORAZÓN EDOTA *OBABA* filmetan erakutsi zuen estilo sotil berarekin heldu dio Montxo Armendarizek gai arantzatsua jorratzen duen bere azken lanari: txikitatik aitak bortxatu duen neskaen istorioa. Silvia protagonistaren begiradak gidatzen du filma uneoro, eta bere egunerokoak, detaile txikiek, keinuek, begiratuek, jarrerek... emango digute atzean ezkutatzeko den errealitate latzaren berri, irudi morbosotara eta dramatismo hanpatura jo beharrik gabe. Bai, fintasun eta kontu handiarekin aurkeztu du gaia zuzendariak, erritmo pausatuz, kontatzeko duen modu pertsonalarekin, egungo zinemari hainbatetan darion arrapaladako estetikari muzin eginez. Baina istorioaren garrantasuna ere ez du saihestu, ez da erori gehiegizko samurkerian; besterik gabe, ikusleoi utzi digu gure ondorioak ateratzen. Hala, gauza handia lortu du zuzendari nafarrak: ikuslea butakan deseroso sentiaraztea, zirrara eta benetako emozioa probokatzea, horretarako odola, negarra eta efektismo merkea baliatu barik.

Silviaren pertsonaiari zor zaio hori, hein handi batean. Protagonistak biolontxelotan, jokoan eta txikitako lagunarengan bilatzen du beste inorengan topatzen ez duen babesa. Amak nahiago du ezikusiarrena egin, eta aitarenganako maitasun-gorroto-beldur sentimendu kontrajarriak ditu gazteak. Ikusleak Silvia ulertu dezake hainbatetan, jokaera okerra duela irudi-



tuko zaio bestetan; ihes egiteko, isilik ez geratzeko, zaplazteko bat emateko... oihukatuko lioke behin baino gehiagotan. Pertsonaia konplexua eta ñabarduraz betea eraiki du zuzendariak, bortxaketaren esperientzia gogor eta mingarriak eragiten duen nahasmenduaren adierazgarri. Aita eta gainontzeko pertsonaiak ere sinesgarriak eta estereotipoetatik aldentuta irudikatu ditu.

Nabarmentzekoak dira, azkenik, soinu banda eta eszenografia. Biolontxelorako konposatutako Manuel de Fallaren eta gehienbat Bach-en obrak Silviaren barne munduaren isla aproposa dira.

Iruñeak, berriz, protagonismo berezia hartzen du: beti Silviaren ikuspegiari leial, ezkutaleku, labirinto, gotorleku, kartzela... bihurtuko da, maisuki irudikatua. Hain juxtu, film gehienak Nafarroan errodatu ditu Armendarizek, baina mezu harrigarria zabaldu du duela gutxi Facebook sare sozialaren bidez: "Argi dago inor ez dela aintzat hartua bere herrian. Ez dut uste berriz Nafarroan errodatuko dudarik". Gure jakin-mina aseko duten arrazoi zehatzak aurrerago emango omen ditu. ■

No tengas miedo. Zuzendaria: Montxo Armendariz.
Gidoia: M. Armendariz, Maria Laura Gargarella.
Aktoreak: Michelle Jenner, Lluís Homar, Belén Rueda.
Drama. 90 min. Euskal Herria, 2011.



TALLERES
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com